

Tokiko Agenda 21eko Foroaren tailerraren akta

2016ko urtarrilaren 28an, 18:30etik 20:00etara, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan



Asiako liztorra edo liztor beltza Legazpin
 Arriskutsua al da?
 Zer egin dezakegu?

Legazpiko Agenda 21eko Foroko partaide aktiboa eta erlezaina den **Floren Gutierrez** kidearen eskutik, gaurko tailerrerako biodibertsitatearekin zerikusia duen eta pil-pilean dagoen gai bat aukeratu dugu: **Asiako liztorra**.

Ze alde dago liztor beltzaren eta liztor arruntaren artean?

Zergatik sortzen ari da horrenbeste arazo?

Garrantzi handiko kontua dela eta esku hartzeko aukera gutxi dugula jakinik, zer egin dezakegu eta nola komeni da jokatzea Legazpin?



1. Nortzuk?

Tailerrean parte hartu dutenak

Kontu horiei eta beste batzuei buruz hitz egin dugu gaur, gure gonbitea onartuz Foroaren 2016ko lehenengo bileran parte hartzera etorri direnekin: guztira **29 pertsona**, batzuk ezagunak eta beste batzuk berriak; azken horiei ongi etorria ematen diegu.



Eskerrik asko!!!

Bereziki, **Floren Gutierrez** kideari, Foroarekin bere ezagutza partekatu duelako eta liztor beltzak sortzen duen arazoarekin konprometituta dagoelako.

Halaber, eskerrik asko **parte hartzaile** bakoitzari ere, gune hau elikatu eta aberastu duelako*.

Jose Luis Cid – Patxi Imaz – Javi Fondon - Arantza Arizmendi – Manuel Fernandez (Nagusilan) – Oscar Valbuena (zinegotzia) – Imanol Ruiz de Gauna – Esther Agirre – Montse Vallejo – Cristina Limia – Jose Esteban Mauleon – Begoña Agirre – Manuel Agirre – Lucia Areizaga – Jose Javier Agirre – Markos Aldasoro – Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskola) – Eurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) - Juan Iñurritegi - M^a Angeles Salvador - Pilar Makibar - Rosa Makibar - Miguel Romaratezabala – Eric Galvez (zinegotzia) – Koldobike Olabide (alkatea) - Inma Hernandez (Ingurumena, industria, merkataritza eta turismoko teknikaria) – Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea.

Hasi aurretik, uste hasieran tailer honekin martxan jarri dugun ekimen berri bat adierazi dugu: hemendik aurrera, eta Agenda 21eko Foroa zabaltzeko eta legazpiarrak bertan parte hartzera animatzeko, **errola hartu eta ausazko zozketa eginez** gonbidapen pertsonalizatua bidaliko zaie 16 herritarri Foroan parte har dezaten.



2. Liztor beltza

Zer da?

Zergatik da arazo?

Nola jokatu Legazpin?

Asiako liztorra, *Vespa velutina*, Liztor Beltza

Liztor beltza (*Vespa velutina*) Txinan jatorria duen liztor-espeziea da.

Liztor beltza, bere espezieko beste batzuk bezalaxe, intsektuak jaten ditu (txindurriak, tximeletak, landare zorriak,.....) baina horiez gain, erleak ere jaten ditu eta espezie oso erasotzailea da. Erraz bereizi daiteke bularraldea eta sabelaldea beltzak dituelako, laugarren segmentua izan ezik, horia dena. Hankak marroiak ditu baina bukaeran hori kolorekoak. Hegoak ilunak dira. Egunez bizi da. Berez, klima subtropikal epelean bizi den espeziea da. Asiako kontinentean kokatzen da, Indiako iparralderaino, eta Txinako mendietan, bertako klima Europako mendebaldekoaren antzekoa den lekuetan (horregatik ohitu da hain ondo Europara).

Liztorraren tamaina aldatu egiten da eta desberdina da elikagaiaren, parajearen eta tenperaturaren arabera baina, hala ere, tamaina handienetako espeziea da.

(Wikipedia)

Gaur gaian aditua den herritarra izan dugu: **Floren Gutierrez**, ohiko parte hartzailea Foroan, erlezaina eta erleen mundua ondo ezagutzen duena eta Legazpiko Udalarekin liztor beltzak egiten dituen habiak kentzeko lanetan laguntzen duena.

Honakoak azaldu dizkigu:


- Liztor beltza nola ezagut dezakegun eta espeziearen portaera: bere ugalketa-zikloa.
- Gure ekosisteman zergatik den hain arriskutsua.
- Zer egin daitekeen haien habiak kentzeko.

Eta azalpenen ondoren, Legazpin liztor beltzaren aurkako kanpaina informatiboa nola bideratu eta zer egin dezakegunari buruz hitz egin dugu baina beti ere kontuan izanik garrantzi handiko arazoa dela eta, beraz, beste maila batzuetan esku-hartze koordinatua eramatea eskatzen duela.

Hasteko, **oinarrizko ideiak** laburbildu ditugu:

Liztor beltza, *Vespa velutina*

- Hemen ezagutzen dugun liztor arruntarekin honako aldeak ditu:
 - Tamaina (3 edo 4 aldiz handiagoa da).
 - Ilunagoa da: ia beltzak dira, hanka horiekin. Sabelaldean hiru segmentu ditu –erdikoa laranja kolorekoa– eta buruan hori koloreko triangelu antzeko bat.
- Liztor beltzak tamaina handiko habiak egiten ditu eta bertan horrelako habi bat ikusteko eta ukitzeko aukera izan dugu.
 - Kolonia sortzen duen erreginak behin-behineko habia egiten du (ez da erlauntza).
 - Behin-behineko habiaren kokalekua egokia bada, koloniaren habia eraikitzeke oinarria izango da.
 - Kokaleku egokia ez bada, lehenengo liztor langileak habi berri bat egingo dute lurretik ahal den urrutien; edo, gutxiagotan, habi horiek eraikin zaharretan edo harresietan egin ditzakete edo lurreko zuloetan.
 - Habiak mastekatutako egur-zuntzarekin eraikitzen dituzte eta metro bateko altuera eta 80 zentimetroko diametroa eduki dezakete.



- Ondorengo grafikoan liztor beltzaren **ugalketa-zikloa** azaltzen da:



Zergatik da arazo?

Batik bat:

- Espezie inbaditzailea** eta harraparia da eta, momentuz, gure habitatean ez du etsirik; beraz, mehatxu larria da ekosistemarako. Frantzia, 2004an, detektatu zen lehen aldiz, Burdeos hiri inguruan; dirudenez, Txinako Yunnan probintziako salgaiak ekarri zituen itsasontzi batean iritsi omen zen. 2010ean Nafarroan eta Gipuzkoan aurkitu zen eta, ordutik aurrera penintsulako iparraldea kolonizatzen hasi da, Portugalera iristeraino.

- Erlea da, % 85ean, liztor beltzaren elikagaia.** Ezta egiten duten erleak polena hartu eta erlauntzera iristen direnean liztor beltzak harrapatu, burua moztu eta jan egiten ditu. Batzuetan habiara eramaten dituzte erleak, beste liztorrekin batera jateko.

Erlea planetatik desagertuko balitz, gizakiari 4 urteko bizitza geratuko litzaioke; erlerik gabe ez dago polinizaziorik, ez landararik, ez animaliarik, ez gizakirik. [Albert Einstein]

- Azkenik, arriskutsuak izan daitezke pertsonen osasunerako –batik bat, haien ziztadak alergia eragiten badie–, liztor arruntak baino pozoiz gehiago sartzen dutelako.

Zer egin daiteke haien habiak kentzeko?

- Azalpenak entzunez eta bideoak ikusiz, erabiltzen diren 3 estrategia ezagutu ditugu; hala ere, adituek ikertzen jarraitzen dute, konponbide eraginkorragoak lortzeko helburuarekin:

- Tiro egin: www.youtube.com/watch?v=YSYdnJRKddQ
- Intsektizida erabili: <https://www.youtube.com/watch?v=vP6afo9CICY>
- Tranpak jarri –etxean egindakoak nahiz erositakoak-:

Puntu hau zehaztu beharra dago. Horrela, adituek eta naturalistek diotenaren arabera, premiazkoa da ondo kudeatzea tranpa horien kokalekua eta, horrezaz gain oso inportantea da tranpak kentzea –denboraz–; zergatik? Tranpa horietan bertako intsektuak harrapatzen direlako eta, ahal den neurrian, zehar kalteak saihestu beharra dago eta kontuz eta arduraz jokatu.

Diferentes modelos de trampas caseras



Algunas trampas comerciales



- Horren haritik, Gipuzkoako Foru Aldundiak badu **liztor beltzaren aurka jarduteko Protokoloa**:

Protokolo hori kontsultatu egin daiteke...

- Hemen, agiria: <http://www.nekagip.net/VespaVelutina/2015/PROTOCOLO.pdf>
- Eta lotura honetan, bideo-laburpena: <https://www.youtube.com/watch?v=op3k0-N0qaY>

Zalantzarik gabe, **informazio oso erabilgarria** da eta elkarrizketa interesgarria sortu da Foroan horren gainean. Are gehiago jakin denean iaz hainbat habi suntsitu zirela Legazpin edo liztor beltzaren ziztaduren ondorioz txakurrak hil direla,...



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Dena den, zer egin dezakegu eta nola jokatu behar dugu Legazpin?

Abiapuntuko irizpideak argiak dira:

- Oso inportantea da legazpiarrek liztor beltzaren eta sortzen duen arazoaren berri izan dezatela; eta habiaren bat antzemanaz gero Udalarri jakinarazi diezaiotela.
- Liztorren habiak kentzeko estrategia desberdinei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako jarraibideak betetzea komeni da, tranpen eta bestelako mekanismoen eraginez, beste espezie batzuk zehar kalteak jasan ez ditzaten.

Beraz, eta Legazpin liztor beltzaren aurka egin dezagun, **ondorengo urratsak ematea erabaki dugu:**

1. Legazpiko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko harremana

- Legazpiko Udala Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarriko da harremanetan, Legazpin liztor beltzaren aurka egiteko **komunikazio-estrategia eta ekintzak** nola bideratu jakiteko; horrela, dagoeneko ezarrita dagoen protokoloarekin bat egitea da xedea.

2. Kanpaina informatiboa eta ekintza-multzoa Legazpin liztor beltzaren aurka egiteko

- Ahalik eta epe laburrean estrategia bat diseinatuko da. Epe laburra diogu, erle erreginekin martxo eta apirila bitartean akabatzea komeni delako. Estrategia horretan jarduketa hauek sartuko dira:
 - Liztor beltzaren berri emanez herritarrei zuzendutako **kanpaina informatiboa**. Kanpainaren helburua legazpiarrek liztorrak eta habiak antzematen ikas dezatela da. Horrela, haiek ikusiz gero, Udalarri deitzea eskatuko zaie.
 - Behar bezala **planifikatutako eta antolatutako kanpaina, habiak suntsitzeko**. Aldundiak gomendatuko duenean egingo dugu kanpaina hori eta, horretarako, Legazpiko pertsona zehatz batzuen laguntza jasoko da.

Eta horrela bukatzen dugu benetan interesgarria iruditu zaigun gaia. **Eskerrik asko, Floren!!**



3. Ohar laburrak

2016ko Foroaren tailerren egutegia

Legazpiko Udalaren Ekoscan ikuskaritza

Akta hau, Inma Hernandez teknikariak tailerraren hasieran taldearekin partekatu dituen **bi oharrekin** bukatzen dugu:

Agenda 21eko Foroaren 2016rako tailerren egutegia

- Eranskinean dator zehaztuta aurtengorako aurreikusi den egutegia. Gogoan izan aurten 15 urte betetzen dituela Agenda 21eko Foroak.
- Esan denaren arabera, **gutxi gorabeherako eta egokitu daitekeen proposamena** da, 2016rako Legazpiko Agenda 21aren gai nagusiak izango dituen beharretara egokituko dena. Gogoan izan hauxe dela 2016ko gai nagusia: Tokiko Ekintza-plan berria egitea eta lan horrekin apirilean hasita dago aurreikusita.

Legazpiko Udalak gainditu egin ditu 2015eko Ekoscan ikuskaritzak

- Azkeneko urteetako konpromisoekin jarraituz, Obra-lantaldeak eta udaletxeak **2015erako ezarri ziren helburuak bete** dituztela egiaztatzen duen ikuskaritza gainditu dute. Hauek izan dira lorpenak:

Obra-lantaldean:

- % 71,4 murriztu da farolen energiaren kostua: Bikuña-Motxorro industrialean, Guriditegi auzoan, Industrialdeko errotondan, Kale Nagusian (1. Fasea) eta Santikutz kalean (2. Fasea).
- % 26,56an igo da auto-konpostajeari eta auzo-konpostajeari esker materia organikoarekin lortutako konposta.
- Latxartegi parkean "Baietz txukun" kanpainarekin jarraituko dugu.

Udaletxean:

- Batzar Aretoan, alkatearen bulegoan eta idazkariaren bulegoan LED bonbillak jarri ondoren, kontsumo elektrikoan % 73 aurreztea lortu da.
- Berogailu elektrikoaren erabilera saihesteko asmoarekin, gehitu eta lekuz aldatu dira erradiadore batzuk. Horrekin, berogailuan % 67 aurreztea espero da.
- Hondakinak gaika bereiztearen portzentajea % 99,45an mantentzen da.

- Zehaztuta geratu dira **2016rako erronkak**.

Obra-lantaldeak honako konpromisoak hartu ditu:

- Eraginkortasun energetikoa hobetzen jarraitzea
- Inauste-lanen ondoren soberan geratutako hondarrak erabiltzeko aukera aztertzea
- Obra-lantalderako ibilgailu efizientea erosteko aukera baloratzea

Udaletxean honako konpromisoak hartu dira:

- Ekitaldietan sortutako ontzi-hondakinak murriztea
- Energiaren kontsumoa murriztea
- Ingurumenaren aldeko sentsibilizazioa areagotzeko jarduerak planifikatzea



4. Hurrengo hitzordua

Martxoaren 17an

Inauteriak igaro ondoren eta Aste Santua iritsi aurretik elkartuko gara; gure aldetik, gai interesgarria proposatzen saiatuko gara, Foroaren ikuspegitik ekarpenen bat egin ahal dezagun.

Bitartean, gaur ikasi dugunarekin **guztiok adi liztor beltzarekin**; eta habiaren bat antzemanaz gero, udaletxera deitu!

Eskerrik asko!

Beti bezala atsegina izan da, eta etorritakoan baino jakintsuago goaz etxera; hori gauza handia da!



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Eranskina. 2016ko Egutegia - Calendario 2016

URTARRILA						
L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Liztor beltza.
Avispa asiatica.

OTSAILA						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29						

MARTXOA						
L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
15	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Gaia zehazteke.
Tema por concretar.

APIRILA						
L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14*	15	16	17
18	19	20	21*	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Ekintza-plana berritzeko prozesua - eguna zehazteke-
Hacia la elaboración del nuevo Plan de Acción - fecha a concretar-.

MAIATZA						
L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Escolako Agenda 21:
Ekonomia jasangarria.
Agenda 21 Escolar:
economía sostenible.

EKAINA						
L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Ekintza-plana berritzeko prozesua.
Hacia la elaboración del nuevo Plan de Acción.

UZTAILA						
L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

ABUZTUA						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

IRAILA						
L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Ekintza-plana berritzeko prozesua.
Hacia la elaboración del nuevo Plan de Acción.

URRIA						
L	M	M	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Gaia zehazteke.
Tema por concretar.

AZAROA						
L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
15	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Urtearen ebaluazioa eta 2017rako plangintza.
Evaluación del año y planificación para 2017.

ABENDUA						
L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	